

zenbakihonetan



ANTXOKO AURRESKU TXAPELKETAK 25 URTE

Jone Arnaez Alkartasunako zuzendariarekin elkarrizketa

2-3. ORRIALDEAK

ESCAPADAS Y VIAJES

Gipuzkoan zehar turista izan nahi duten herritarrentzat hainbat proposamen

8-10. ORRIALDEAK

FESTA TRINTXERPEN

Los días 28 y 29 de mayo una fiesta reivindicará «Orain La Herrera ya!»

PAGINA 14

«Las condiciones otorgadas a Pasaia en 1805 no se cumplieron»

El historiador trintxerpetarra David Zapirain es el autor del libro que narra cómo y en qué circunstancias se creó hace dos siglos Pasaia como municipio independiente. PAGINAS 4 Y 5



PASAIA

Donibaneko barrutiari txekeoa 6-7. ORRIALDEAK



LA IMAGEN SUPERIOR CORRESPONDE A KALABURTZA, PLAYA NATURAL HOY COMPLETAMENTE DESCUIDADA. ¿QUÉ OTRAS CARENCIAS TIENE DONIBANE?



Pasaiarekin beti!

Avenida Zumalakarregi, 5
Pasai Antxo
Euskadi Etorbidea, 3
Trintxerpe



nolako ikasketak,
halako lana

www.mondragon.edu

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ARRASATEko Campusa
GOIERRIKo Campusa

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
OÑATIKo Campusa

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
ESKORIATZAKo Campusa

Batzorde Berezi batek herriaren muga historikoak defendatuko ditu



Ex alcaldes recibieron una copia de la Real Cédula por la que se unieron Donibane y San Pedro.



Las bateleras de Donibane bailaron al término del acto conmemorativo.

El Ayuntamiento conmemoró el pasado 3 de junio el bicentenario de la creación de Pasaia como municipio unido e independiente. Lo hizo con dos actos. El primero, que tuvo lugar en el Salón de Plenos del Consistorio, fue la aprobación por unanimidad de una moción encaminada a reclamar para nuestro municipio los límites territoriales que históricamente y por ley le corresponden.

Tal y como PASAIAN ha veni-

do informando a lo largo de este 2005, las «mugas» que a nuestro municipio le fueron otorgadas por Carlos IV el 1 de junio de 1805 no se han respetado en los últimos doscientos años y son más amplias que las actuales.

La moción ahora aprobada supone el inicio de la reclamación de esos límites originarios y son el paso que en los últimos meses se venía esperando de los representantes municipales. El texto acuer-

da «denunciar ante la administración competente nuestro frontal desacuerdo con los límites territoriales que la misma asigna a nuestro municipio, y mostrar nuestra más firme disposición para hacer valer los que le fueron otorgados a Pasaia en el momento de su constitución como villa, como punto de partida para cualquier solución futura». De igual manera, el Pleno dio por constituida una Comisión Especial para la defensa de esas

«mugas». Este equipo de trabajo, presidido por la alcaldesa, y asistido por el letrado municipal, tendrá entre sus miembros a los responsables políticos actuales y de anteriores corporaciones que citamos a continuación: Juan Carlos Alduntzin, Miriam Cano, Jesús García, José Luis Goikoetxea, Bixen Itxaso, Roberto López de Etxezarreta, Joaquín Martínez Vidal, José Luis Martínez de Espronceda, Xabier Portugal,

Guillermo Sánchez-Berra y Jaime Sanz.

Conformado este grupo de trabajo, queda ahora esperar cuáles serán los pasos efectivos que lleve a cabo en los próximos meses.

Ospakizuna

Pasaia legezko mugak aldarrikatzeko Batzorde Berezia eratu ostean, 200. urteurrenaren ospakizunak udaletxetik Santiago plaza-raman zituzten udal ordezkariak ekainaren 3an. Bertan jarritako karpa batean, beste erakunde-etako arduradun politikoei eta azken urteotan udaletxeko arduradun izan diren hainbat laguni harrera egin zitzaion. Eusko Jaurlaritzatik Miren Azkarate Kultura-sailburua izan zen Donibanen, Diputaziotik Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia, eta Portu Agintaritzatik Jose Ignacio Espel lehendakaria. Izaskun Gomez Pasaia alkatetako aurreantzean udaletxeko fatxadan egongo den plaka desestali zuen. Euskaraz zein gaztelerez, «Hiribildu prestu eta zintzoa, bere onerako bikoiztu edo hirukoiztuko dena...» irakur daiteke bertan.


Pasaia elkarteetako kideak eta herritarrak ekitaldira gonbidatu ez zituelako, Udalak kritikak jaso ditu, besteak beste Donibaneko Bonantzarengandik. Ospakizunak irauzen bitartean, ezker ezkerreko hainbat lagunak gogor salatu zuten udal jardueran parte hartu ezin izana. Gomezen aurkako oihuak entzun ziren honek hitz egin zuenean. Musika eta dantza Alkartasunak, Pasaia Abesbatzak eta Donibaneko batelerek jarri zituzten.

INTERVENCIONES EN EL ACTO DEL 200 ANIVERSARIO




Izaskun Gómez
alcaldesa de Pasaia

Afirmó en su intervención que «la historia de Pasaia hasta su nacimiento en 1805 fue una sucesión de negociaciones y enfrentamientos, que conformaron, a lo largo de más de seis siglos, un difícil proceso, un contruero y desordenado conflicto difícil de resolver. Por unas y otras razones y ante la dificultad de conjugar diversos intereses, esto aún perdura en nuestros días». Expresó su agradecimiento a cuantos hicieron posible «que esta realidad a la que llamamos Pasaia continúe en la senda que marcaron personalidades como Vargas Ponce, artífice de nuestra razón de ser como entidad local con personalidad propia», y abogó por la «convivencia» y por unas «fluidas relaciones institucionales».



Roberto López de Etxezarreta
ex alcalde de Pasaia

El que fuera alcalde de Pasaia hace dos décadas mostró su satisfacción por la moción aprobada y reivindicó la urgente regeneración de Pasaia, subrayando que el Ayuntamiento no puede hacer frente en solitario a ese reto, sino que necesita de la implicación de otras instituciones. Subrayó que nuestro municipio llegó a tener 25.000 habitantes y que hoy no alcanza los 17.000. Recordó que la petición de la variante de Antxo data de la legislatura en que él fue alcalde y que veinte años después aún no se ha materializado. «En cierta ocasión, un diputado de la Diputación de Gipuzkoa me preguntó de qué Pasaia era yo alcalde», comentó para mostrar el desconocimiento que existía sobre nuestro municipio.



Juan Carlos Alduntzin
ex alcalde de Pasaia

Su discurso fue el más amplio y el que más duramente criticó la gestión de las instituciones en la regeneración de Pasaia. Alduntzin denunció la situación de exclusión de la izquierda abertzale, y, respecto a los últimos 200 años, afirmó que a este pueblo se le ha robado territorio. Exigió a Joxe Joan Gonzalez de Txabarri que dote a Pasaia de los medios económicos que necesita. A José Ignacio Espel le recordó que el Puerto es la losa más pesada de Pasaia. A través de Miren Azkarate, pidió a Ibarretxe que no mencione más la situación de nuestro pueblo si no es para comprometerse con dinero a la Corporación Municipal el reprocho haber realizado el acto del 200 aniversario de espaldas a los vecinos de Pasaia.



Joxe Joan González de Txabarri
Diputado general de Gipuzkoa

El diputado general rechazó las críticas vertidas por Alduntzin y se preguntó «qué va a escuchar quien hace oídos sordos», en alusión al abandono del acto de conmemoración por parte de los miembros de la izquierda abertzale tras la intervención del alcalde en la anterior legislatura. El diputado general aseguró en Donibane que «Pasaia es una prioridad» y que la «actitud de poicot» no ayuda. «Pido a los representantes legítimos de este pueblo que sean proactivos y que dejemos atrás rémoras del pasado», dijo. González de Txabarri cree que «tenemos que ser capaces de llevar los retos adelante». Tras felicitar a los presentes por el bicentenario del municipio, terminó su intervención con un «Gora Pasaia!».

«El historiador Vargas Ponce fue el padrino de Pasaia; él ideó el plan para crear este municipio»

EL 1 DE JUNIO DEL AÑO 1805, UNA REAL ORDEN DE CARLOS IV CONCEDIÓ A SAN PEDRO LA DESANEXIÓN DE DONOSTIA Y, UNIÉNDOLO AL YA ENTONCES INDEPENDIENTE San Juan, conformó el municipio de Pasaia. Los historiadores y miembros de Aranzadi David Zapirain y Juan Carlos Mora son los autores del libro "Pasaia 1805-2005", que deberá ver la luz en breve, previsiblemente en el transcurso de las fiestas de San Pedro o Donibane, de manos del Departamento de Cultura del Ayuntamiento. Esta obra gira en torno a ese acontecimiento histórico del que este 2005 se cumplen dos siglos. PASAIAN ha tenido ocasión de entrevistar a Zapirain, que es trintxerpetarra y para quien «ha sido un placer» poner en orden todos esos hechos históricos en torno a los que existe «una gran confusión».

En palabras de este autor, José de Vargas Ponce, personaje erudito de la época, desempeñó un papel fundamental en la creación del Pasaia moderno, hasta tal punto que Zapirain lo considera el «padrino» de nuestro municipio. Enviado a este pueblo por Carlos IV, Vargas Ponce propuso al rey una serie de medidas tendentes a mejorar la gestión del puerto y a facilitar los intereses de la Corona en la bahía, apartándola de la influencia de Donostia y de la Diputación. Una de las actuaciones que recomendó y que el soberano hizo suya fue dotar al nuevo municipio de Pasaia de unas «mugas» geográficas que no han sido respetadas en los dos últimos siglos. De tal manera, según desvelan las páginas de este libro, Pasaia tendría su verdadera linde con Donostia en el Alto de Miracruz. Bidebieta, así como parte de Intxaurren y de Altza, pertenecerían oficialmente a nuestro municipio, «dado que ninguna norma posterior ha anulado el Real Decreto de Carlos IV».

En cualquier caso, ni los límites geográficos ni otras condiciones se le otorgaron a Pasaia en su creación llegaron a respetarse. Por otra parte, el proceso de conformación del municipio no fue testigo de luchas entre sanpedrotarras y sanjuandarras. Muy al contrario, los responsables políticos de nuestro pueblo actuaron con exquisita educación hacia el vecino, en palabras de Zapirain, y lucharon por lograr dos alcaldes. El libro incluye imágenes de Pasaia inéditas hasta ahora. A su autor le gustaría que este libro fuera el primero de una colección, y poder así seguir investigando sobre otros tantos aspectos históricos hoy desconocidos de nuestro pueblo.

-Juan Carlos Mora historialariarekin batera, «Pasaia 1805-2005» liburua idatzi duzu, hemendik gutxira Udalak argitara eman behar duen lana eta pasaitarroi gure herriaren historia hobeto ezagutzen lagunduko diguna. Nondik sortu zen liburu hau idazteko ideia?

Lehen ideia orain dela hiru urte, aurreko legealdian, hasi zen mami-tzen. Udaletxeak Pasaiaiko mugei buruzko txosten bat egiteko eskatu zion Aranzadi Zientzia Elkarteari. Txosten tekniko bat zen, baina, lan horri esker, alde aurretik bagenekizkien hainbat gauza baieztatuta gelditu ziren. 2005. urte honetan Pasaia batua eta independentearen 200. urteurrena ospatuko zenez, zenbait ideia lantzen hasi ginen. 2004. urtean liburu honekin hasia erabaki genuen.

-Zer dela eta eskatu zion Udalak Aranzadiri liburu honen oinarria izan den mugei buruzko txosten hori?

Inguruko hainbat herrirekin mugen inguruan izan dituen auziak zirela eta, hainbat zalantza agertu zitzaizkien udal teknikariei. Guk ikerketa historiko bat egin genuen, Pasaiaiko mugen egoera zein zen argitzeko. Eta, horri lotuta, ezinbestekoa gertatu zen Pasaia batua edo Pasaia modernoa noiz eta ze baldintzetan sortu zen azaltzea. Txosten tekniko-tik liburrurako jautzia oso handia izan da. Lan honen helburua da pasaitarren artean gure herri kaotiko honen nondik norakoak ulertaraztea. Mugen auzia ez da liburuaren mamia, baina bai zati oso garrantzitsua.

-Hitz egin dezagun lehenik eta behin txostenak eskaintzen duen ondorio nagusiarri buruz. Ikerketa horren arabera, non egongo lirarteke Pasaia lege dagozkion mugak?

Ondorio nagusia izan daiteke 1805. urtean sortutako Pasaia modernoari zegozkien mugak ez direla inoiz bertan behera utzi lege, baina ez direla praktikara eraman. Pasaia modernoa sortzeko, gure herriari Altzaiko zati handi bat erantsi zitzaion. Mirakruzetik aurrera (Arzak jatetxearen ondok) itsasoraino doan lur eremu guztia Pasaia litzateke, Bidebieta guztia barne. Eta Intxaurrendoko zati bat ere. Errenteria alde-tik gutxi gora-behera orain ezagutzen ditugun mugak izango lirarteke garai hartakoak, baina San Markos edo Antxo inguruan baliteke ezberdintasunen bat izatea. Edonola ere, mugen inguruko istilu handiena Donostiarekin izango genuke.

-Aipatu dituzun eta gaur errespetatzen ez diren muga horiek Carlos IV.ak zehaztu zituen. Liburuak jasotzen duenez, 1805. urteko ekainaren 1ean, errege horrek San Pedro Donostiarengandik banatu zuen eta, Donibanerekin elkartuz, Pasaia berria eraikitzeko agindu eman zuen, udal aktetan jasota dagoen lege. Herriak hori aldarrikatzen al zuen?

Hainbat faktorek eragin zuten. Baina, erregearen agindu hori ulertzeko, ezinbestekoa da José de Vargas Ponce historialariaren jarrera ezagutzea. Andaluziar hau erregearen ordezkaria izan zen Pasaian eta berak eraman zuen praktikara Pasaia modernoa eraikitzeko plan guztia. Gure ingurunean beste aldateta batzuk ere proposatu zituen Vargas Poncek. Adibidez, Hondarribia eta bere eskualde guztia Gipuzkoatik banatu eta Nafarroari atxikitzea. Lurralde antolakuntzan aitzindaritzat jo dezakegu zentzu horretan, nahiz eta, ekintza guzti horiekin, bertakoan aldarrikapenez gain, berak Espainiako Koroaren interesa ere bilatzen zuen. Vargas Ponce Pasaiaeren aita ponteakoa izan zela esan daiteke. Gure herrira etorri zen bere ikerketa egitera eta, bitarte horretan, Donostian bizi izan zen. Izen handiko gizona zen eta lanerako gaitasun handia omen zuen. Bitan izan zen Espainiako Historiaren Akademiako zuzendaria eta lanbidez militarra zen.

-Baina herriak eskatzen al zuen Donostiarengandik banatzea eta Pasaia berria eraikitzea?

Herriak ez dakit. Herriko agintari batzuk behintan bai. Urte batzuk lehenago aukera horri itxita egon baziren ere, orduan Pasaiaerentzat proiektu horretan biziki sinetsi zuten. Vargas Poncearen iritziz, Donostia zen Pasaiaiko gaitzen errudun nagusia. Eta Foru Aldundiak ere bazuen, bere ustez, horretan zerikusirik.

-Vargas Ponce erregearen ordezkaria zen. Ze interes izan zezakeen Koroak San Pedro Donostiarengandik banatzeko eta Donibanerekin elkartzeko?



Salón de Belleza
EDER

Preparate para
este verano!

Sistema Americano
de Bronceado sin
rayos U.V.

Láser médico

Tratamientos Corporales
anticelulíticos
y realfirmantes, ...

Tel. 943 30 63 44

ŠKODA SUPERB

Imagina la perfección en cada detalle.
Y condúcela.

MENABI Paseo Txingurri, 26 • Tel. 943 40 42 43 Donostia

INMO f3
RED inmobiliaria

Euskadi etorbidea 59 bajo 20110 Pasajes San Pedro
Tel. 943 40 45 15 Fax. 943 40 45 16 E-Mail estudiointxaurren@inmof3.com

Coop. Transp.
PASAJES
TELEF. 943 34 02 50
FAX. 943 34 02 50

COOPERATIVA DE TRANSPORTE DEL PUERTO DE PASAJES

TRANSPORTES NACIONALES E INTERNACIONALES
SEGUROS MERCANCÍAS
SERVICIOS CARRETERA

EDIFICIO QUINCASA
MUELLE DE CAPUCHINOS
20110 PUERTO DE PASAJES
943 70 - 20110 PASAJES SAN PEDRO
943 34 02 50 - 600 90 10 00
E-mail: coop@coopasajes.com



David Zapicán, autor de la obra «Pasaia 1805-2005» -que verá la luz en mayo-.

«Deseo que este libro llegue a todos los
que pueda ser el primero de una

»

Herri hau gure estrategikoa zelako eta, kaiaren garrantzia zela eta, bere ekonomiarentzat interesgarria iruditzen zitzaion Pasaia. Vargas Poncek nahiago zuen portua zuzenean Koroak kudeatzea, Foru Aldundiaren edo beste erakunderen baten bidez egin beharrean.

-Pasaia Donostiatik bananduz, Foru Aldundiarengandik ere aldentu nahi zuen, beraz?
Pasaia Donostiarengandik banatuz eta badia honen kontrol zuzena erregeari zegokiola esanez lortu nahi zuen helburu hori.

-Ze beste neurri proposatu zizkion Vargas Poncek erregeari idatzi zuen txostenean?
Lehen aipatu ditugun mugak zehaztu zituen, Pasaia batua proposatu zuen, kaia kudeatzeko modua aldatzeko gomendioa ere egin zuen eta horrelako beste neurri orokor batzuk. Portua Koroaren aginduetara gelditu zen, baina batzorde baten bidez. Garai hartan ezarritakoa, gaur egungo portuaren batzordeko aitzindaria izan zen, nolabait esateko.

-Erabaki horiek guztiak nola aldatu zuten pasaitarren bizitzan?
Hori izan da liburua idatzi eta gero gure buruari egin diogun galdera. Eta ez dago erantzunik, Vargas Ponceren proiektua ez zelako erabat gauzatu. Egitasmoa bere jatorrian ez zen errespetatu. Pasaia edo kai ahaltsu bati zegozkion baldintzak ez ziren eman. Horregatik, ez dakigu neurri horiek ez eragin izango luketean bete izan balira. Dakiguna da ia ehun urte beranduago, kaiaren berrikuntza sakona egin zenean, herriak ze bultzada handia jaso zuen. Hor hasi ziren Pasaia sorrarera, banatze eta elkartze buruzko nahasteak, gaur egun arte iraun dutenak.

-Gaur egun barruti izenez ezagutzen ditugun lau herriek hartu al zuten parte Pasaia berriaren eraikuntzan?
Donibane eta San Pedrorekin batera, Trintxerpek parte hartu zuela argi dago. Garai hartako datuetan, trintxerpetarrak udaltxean agertzen dira. Antxo padura bat zen orduan, nahiz hainbat baserri izangar zituen. Molinao bazegoen, baina Altxa edo Pasaia ote zen eztabaidatzen hasiko ginatke.

-Erregearen aginduaren ostean pasaitar guztiak udaltxe bakarra osatu zutenean, nola antolatuta zuten erakunde hura?
Luze kontatzeko gaia litzateke hori. Hasieratik bi alkate eskatu zituzten, bat beharrean. Baina bi alkate horiek lortu bitartean, lehen hauteskunderen bakarra aukeratu behar zuten. Eta etengabeko kortesia eta mesedetan jokatu zuten San Pedrokoek Donibanekoekin eta Donibanekoek San Pedrokoekin. San Juangoek esaten zuten: «Izan dadila guztion alkate San Pedrokoa». Eta San Pedrokoek: «Ez, ez, izan dadila San Juango lehen alkatea». Orduko politikariak oso edukazio onekoak, sentiberak eta jende jantzia baitziren. Eta oso diskurtso politikak daude, liburuan jaso ditugunak. Azkenean, bi alkate lortu zituzten.

-San Pedro eta Donibaneko herritarren artean ez zen istilurik izan, beraz, hasiera hartan?

Ez, alderantziz. Ez dut uste orduko bizitzan halakorik izango zenik. Altxako jendea ere hor tartean egongo zen, eta elkarrekin egingo zuten guztiak lan.

-XIX. mende hasiera hartan nolako zen pasaitarren bizimoduak?

Orokorrean hitz egin daiteke; ez zehaztasunean, ez dugulako daturik. Vargas Poncearen esanetan, miseria gorrian bizi ziren pasaitarrak. Ez dakigu baieztapen hori noraino zen egia. Demografia datuei erreparatuta, ziur aski hala zen, ez zegoelako bizitza asko herri honetan. Baina Pasaia jauntxo batzuk negozio onak zituzten; Arizabalok edo Ferrer-ek, esaterako. XVI. mendeko garai loriatsuak gogoan zituzten orduan. Bazirudien garai hartan herri hau munduaren zentroa zela, baina hori berehala desagertu zen.

-Liburua osatzeko kontsultatu dituzuen artxibo eta agiri guztiak diote Pasaia 1805. urtean eman zitzaizkion mugak gaur egungoak baino askoz ere zabalagoak zirela (Bidebieta, zein Altxako eta Intxaurrendoko zati bat barne...). Zergatik ez zen Koroaren agindu hori bete?

Liburuan kontatzen denaren arabera, bakoitzak bere iritzia atera behar du. Prozesu luzea izan zen eta interes asko egon ziren jokoa. Baina inongo agirietan ez du jartzen zergatik ez ziren gauzatu Carlos IV.ak emandako mugak. Errege batek sinatu zituen muga horiek eta ez dago horiek bertan behera uzten dituen beste agiri ofizialik. Napoleonen garaian bai, Carlos IV.aren agindua ezabatu zen, baina Napoleonen ebazpen guztiak bertan behera gelditu ziren gero. Inork ez zuen Carlos IV.aren aginduen aurkako beste agindurik eman, baina ez zen gauzatu hark esandakoa. Orain beste errealtate bat dago lur horietan. Pasaia ez den beste errealtate bat sortu da horren gainean. Gaur egun Casares Pasaia dela esatea ere... Badaude beste zonalde batzuk, aldiz, Pasaiairekin mugakideak direnak eta administrazio normalizatuago bat behar dutenak: Azkuene, Eskalantegi... Baina aldarrikapen hori Udalaren erabakia da.

-Lan historiko honi esker dakiguna jakinda, zuk uste duzu mugen inguruko aldarrikapenen bat egitea zilegi litzatekeela?

Esan dezakedan bakarra da Donostiak oraindik Pasaiairek errespetu bat zor diola. Eta praktikan Pasaia diren hainbat toki hobeto gobernatu edo administratu behar liratekeela. Teorian dena da Pasaia. Praktika administratiboan, berriz, Donostia iristen da iristen den lekuraino. Baina eguneroko bizitzan badaude hainbat leku Pasaia direnak: Azkuene, Molinao...

-Pasaia lege zegoen lur eremuak berreskuratuko balitu, diru asko lortuko luke.
Horregatik eman zizkion eremu horiek Vargas Poncek Pasaiairek. Donibanek ez zuen baserririk, San Pedrok bi zuen eta Trintxerpek bost. Lur eremu horiek, baserri berriak gehitu nahi izan zituzkion herri berriari. Horretarako, eta Donostia kaiarengandik urruntzeko.

-Juan Carlos Mora altzatarra izan duzu liburu honetan lankide. Zuk liburua idatzi duzu; Juan Carlosek Vargas Poncearen txostenaren kopia egin du eta oharrak jarri dizkio. Bien artean prozesu guztia dokumentatu duzue. Nolako da laister eskuartean izango dugun liburu hori?

Vargas Poncek Pasaiairek batasuna eta independentzia lortzeko erabiltzen duen txostena baliagarria da gure herriaren historia orokor bat egiteko. Liburuaren lehen zatian txosten horren komentarioa egin dugu; horren ildotik Pasaia historia azaldu dugu. Gero Vargas Poncek erregeari proposatu zituzkion neurriak 200 urtetan zehar nola garatu diren aztertu dugu, edo, hobe esanda, nola ez diren garatu. Vargas Poncearen agiria liburuan agertuko da, XIX. mendean idatzi zuen bezala. Baina, gure helburua liburu honekin historia herritarren artean zabaltzea denez, hainbat ohar gehitu dizkiogu testu horri, hainbat pasarte ilun argitzea. Euskarazko zein gaztelazko bertsioak bilduko ditu liburua. Eta irudiek hornituta egongo da. Irudi hauetako batzuk orain arte argitaragabeak dira, eta beste batzuk argitaratutakoak. Baina, gure ustez, argitaratu diren euskarri edo liburua ez dira pasaitarren artean inoiz masiboki banatu. Irudi biketari garrantzia eman diogu, pasaitarrek behingoz Pasaiairek buruzko bilduma txiki bat izan dezaten. Horrekin batera, XIX. mendeko lamina bat aterako dugu, herriko plano batekin. Plano horrek akatsak zituen eta zuzendu egin dizkiogu. Eta Francoren garaiko sorpresa bat ere izango da.

-Ze artxibok gordetzen du José de Vargas Poncearen txosten originala?

Orain Pasaian kopia bat dago. Baina Vargas Poncek idatzitako paper tona gehienak Madrilgo Untzi Museoa daude, txosten hau tartean. Gure ikerketa egiteko, Pasaiako udaltxean zegoen informazio apurrari gehitu behar izan diogu inguruko udaltxeena, Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorrean aurkitutakoa eta beste hainbat agiriregietako informazioa.

-Ikerketa honi esker jakin duzun gauzarik harrigarriena zelan izan da?

Pasaiairek banatze ekiditeko Donostiak erabilitako trinkimailuak azpimarratzekoak dira.

-Pasaitarra zara. Nolako esperientzia izan da zure herriaren historiari buruz idaztea?

Datu guztiak jarraian eta ordenatuta jartzea plazerra izan da. Pasaia bere ondarea eta bere historiari buruz duen maila negargarria da. Idatziz orain arte dagoena oso urria da eta metodologia zaharrik erabiltzen du. Pena da, Pasaia ez delako herri txikia eta garrantzi historiko izugarria izan duelako. Liburu hau Udaleko Kultur Sailaren babespean egin da. Nere eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Kultura, Euskara, Hirigintza, Idazkaritza eta Artxiboko langileei. Aurrera begira, gure asmoa litzateke liburu honek jarraipena izatea eta bilduma bat sortzea.

-Nondik joko zenukete lan berriak idazteko?

Dena dago ikertzeko. Pasaitarren benetako eguneroko bizitza nolako zen ez dakigu, esaterako. XX. mendeko Pasaia ez du zerikusirik ez XVI. mendeko Pasaiairekin ez eta XVIII-XIX. mendekoekin ere. Ikertzeko beste gai batzuk izan litezke Antxo eta Trintxerperen sorrera. Edota langileen mugimenduak XX. mendean.